

## EBK USURBIL – Talde Sustatzailearen 3. bilera

(2022/05/31 – 18:00 – Udarregi erdiko aretoa)

### Parte hartzaileak

**Goienerr:** Alazne, Iban

**Udala:** Ibon eta Joxe mari

**Herritarrak/elkarteak:** 6 herritar

### Sarrera

Orain arte egindakoaren laburpena.

(Ikusi "2022.04.27 - TS 2. bilera - Sarrera" aurkezpena)

Prozesua eta helburuak gogorarazi nahi dira: hau ez da goitik etorritako gauza bat, erabakita dagoena, baizik eta komunitatetik bertatik erabakiko da zer egin, beharren eta baliabideen arabera.

### Azalpenak

Lantaldeen inguruko azalpenak.

(Ikusi "2022.04.27 - TS 2. bilera - Sarrera" aurkezpena)

Lantaldeak hasieran Talde Sustatzailearen (TS) baitan egongo dira. Ez da aditua izan behar bertan parte hartzeko. Lantalde bakoitzak erabakiko du noiz eta nola bildu. Lantalde bakoitzaren beharren eta eskaeren arabera, Goienerrrek laguntza emango du gai konkretuetan.

Hiru lantalde nagusien laburpenak (Hernanin horrela egin da, adibidez):

- **Proiektuak:** Komunitateak egin litzakeen proiektuen aukera ezberdinak aztertu eta zein egingo diren zehaztu...
- **Komunikazioa eta komunitatea:** Energia komunitatearen izena eta logoa, nola sozializatu kanpora begira, partaide berrien harrerak egin...
- **Juridiko-administratiboa:** Komunitatearen bideragarritasuna aztertu (autokontsumoaren irabaziak nola kudeatu, adibidez), kooperatibaren estatutuak landu (Goienerrrek egituratuta du hori, eta erreferentzia bezala

erabili daitezke, baina komunitateak emango dio forma bere izaera propioaren arabera), komunitateko partaideen botere eta erantzukizunak zehaztu...


**Lantaldeetan kokatzen.** Bileran bertan esandakoak kontuan izanda, momentuz lantaldeetan izena eman duten pertsonak honakoak dira:

- Komunikazioa eta komunitatea:
- Juridiko - administratiboa: 1
- Proiektuak: 2

Taldeak osatu ahala, lantaldeetan banatzeko tarteak hartuko ditugu, bakoitzak bere gaiak landu ditzan. Hala ere, tarteka saio komunak egitea ere komeniko litzateke; batez ere kooperatibei buruzkoa, guztiok kooperatiben "joko arauak" (parte hartzea, botereen banaketa...) ulertu ditzagun.

## SAIOAN ZEHAR HAUSNARTUAK

- Zertarako bildu gara hemen? Helburuak zehazteko beharra sentitzen da, alor teknikoetan sartu aurretik.
- Haserrea eta etsipenari aurre egiteko modua izan daiteke EBK bat, guztion artean zerbait eraikitzekoa, egoera aldatzeko helburuarekin.
- Inguruan, eredu ezberdinak sortzen ari dira, baina hauetan, goitik beherako proposamenak direla hausnartu da. Parte hartzea ez dela sustatzen ikusten da, eta proiektu baten baitan eraikitako figurak sortu nahi direla, subentzioak jaso eta betiko enpresen mesedetan momentua baliatzeko.
- Ondo identifikatu behar genituzke ze behar eta ze baliabide ditugun (1. Saioan hasi ginen honen inguruan hausnartzen)
- Gure kontsumoaren inguruan hausnartzerakoan, alderdi termikoak duen pisua ere kontuan izan beharra dugu, zati hau kontsumo elektrikoa bera baino handiagoa izan ohi baita askotan.
- Gure ohiturak aldatu nahi genituzke, mugikortasuna ereduaz hausnartu (garraio publikoa hobetzeko neurriak, ordutegiak eta prezioak hobetuz adib).
- Proiektu kolektibo bat martxan jarri nahi da, onura bateratu bat lortzeko. Eta honen bidean, sarea berdetzen joateko alea jarritz.



- Prozesua bera, aberatsa dela ikusten da. Kohesionatzailea izan beharko luke, irabazi asmorik gabeko ekimen sozial bat izanik. Parte hartzean oinarrituko dena.
- Norberak sustatutako lanketari esker, bertatik eta bertakoentzako dena, proiektuarekiko jabetasun sentimendu bat sortzen du. Eta satisfazioa nagusitzen da, ezkortasunaren aurrean.
- Dekalogo edo fundazio gutun bat baliagarria izan liteke, herritar eta parte hartzaile ezberdinen babesa zehazteko.
- Hondakinen inguruan, eman zen aldaketa bat herri mailan. Adostasunez bizi ez genuen egoera baten aurrean, erantzun kolektiboa nagusitu zen ( 0 zabor, tupper-en erabilera erosketetan...). Eta hau, antzerakoa izan liteke.
- Gizarte mailan nagusitzen den haserre hori arintzeko, gure filosofia edo sortze biden dugun proiektuaren oinarri eta balioak zabaldu genitzake gure inguruan.
- Bi alderdiak jorratu behar genituzke aldi berean: proiektuak eta irtenbide teknikoen aukerak, baina baita filosofia eta helburuarena ere.
- Nor gaude? Zein falta da hemen?
- Plaketan oinarritutako proiektuak, jendearentzat erakargarriak izan litezke. Baliatu litezkeen proiektu egingarriak dira.
- Pobrezia energetikoaren gaia jorratzeko, zerbitzu sozialera jo beharko genuke.
- Deialdiak Noaua bitartez zabaltzeko aukera.
- Lan taldeak pixkanaka osatzen joan behar genuke, eta jendeari, profil edo ibilbideagatik, bat edo besteen parte hartzeko gonbidapen zuzenak egin.

## ONDORIOAK ETA ERABAKIAK

Goienerretik, orain arteko saioetan egindako hausnarketak baliatzea erabaki da, proposatu zen Fundazio Gutunaren dokumentu irekiari forma ematen hasteko:

Dokumentura sarbide esteka → [USURBILGO EBKren HELBURUAK ZEHAZTEN](#)

Hartara hurrengo saioan, hau partekatu eta sakonduko genuke. Hernanin landutako finantzazioa estrategia (diagrama) ere ezagutu nahi lukete eredutzat.



## HURRENGO SAIOAK

Hurrengo bilera → Ekainak 14, 18:00etan, SUTEGI aretoan.

Landuko dugun gaia:

**HERNANIKO esperientzia ezagutzea**, parte hartzaile zuzen baten bitartez.  
Fermin (Ingutekeko langile eta Hernaniko herritarra).

## ETXEKO LANAK

Bien bitartean, pentsatzen joateko:

- Bakoitzak zer lantaldeetan ikusten duen bere burua (jada kokatu ez bada).
- Bakoitzari dagokion lantaldearen funtzionamendua (bilerak noiz eta non egin, zer komunikazio bide erabili...).
- Lantalderen baterako aproposa den edota lantalderen batean interesa izan dezakeen pertsonak identifikatu, eta parte hartzeko gonbidapena egin.

(Bileraren amaiera: 20:00)

